

BETE BEHARREKO ARAUDIA, AKORDIOAK ETA PROTOKOLOAK

- [17/2019 Foru Legea](#), apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- [INAI/NABIren ibilbidea](#), udaletako berdintasun arloen lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko
- [Nafarroako emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakunde arteko III. Akordioa, 2017koa](#)
- [Genero indarkeriaren aurkako 2017ko Estatu Ituna](#)
- [3/2007 Lege Organikoa](#), martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa

17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa

12. artikulua. Nafarroako toki entitateak

2. Zeini bere lurralde-eremuan eta ordenamendu juridikoak emandako eskumenak betez, toki entitateei eginkizun hauek dagozkie berdintasun arloko politiken gaian:
- a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaren arloko **helburuak eta jarraibideak** ezartzea beraien lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatearen politikekin koordinatuta.
 - b) Beraien jarduketa guztietan genero-ikuspegiaren **zeharkakotasuna** txertatzeko behar diren tresnak ezartzea.
 - c) Udal jardunaren eremu guztietan **desparekotasuna eta diskriminazioak desagerrarazteko politikak** gauzatzea.
 - d) Emakumeen **gabeziak eta beharrak** aztertu eta atzematea, foru lege honen helburuak betetzeko kasuko lurralde-eremuan.
 - e) Emakumeei **arreta, informazioa eta orientabideak ematea** eskura dituzten programa eta baliabideei buruz, beraien eskubideak egiaz erabil ditzaten laguntzeko.
 - f) Herritarrek **sentsibilizatzea, balio aldaketa sustatuz**, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko.
 - g) Emakumeen autonomia pertsonala eta ekonomikoa sustatzea, **emakumeen enplegua eta haien ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatuz**.
 - h) **Emakumeen presentzia** sustatzea parte hartzeko organoetan eta erabakiak hartzeko guneetan.
 - i) **Emakumeen elkarteei eta talde feministei laguntzea**, eta sustatzea parte har dezaten berdintasunaren eta genero-zeharkakotasunaren politikak diseinatzen, egiten, garatzen eta ebaluatzen.
 - j) **Estatistika eguneratuak** izatea, toki entitateen jardun eremuetan emakumeek eta gizonen dituzten egoera desberdinen berri izateko bide ematen dutenak.
 - k) Ahaleginak eginen dira laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko **tokiko baliabideak eta zerbitzuak** ezarri eta egokitzeke.
 - l) Bermatzea, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta, **teknikarien eta politikarien berariazko prestakuntza** dagozkien eginkizunak bete ditzaten foru lege honek ezartzen duenari dagokionez.

BALIABIDEAK

1. Nafarroako toki-erakundeetako berdintasun-politika planifikatzeko ibilbidea:

<https://www.igualdadnavarra.es/uploads/files/ItinerarioInteractivoWebEusk.pdf>

2. Dirulaguntzen deialdia:

- NABIk Nafarroako toki entitateei [dirulaguntzak emateko urteko deialdia](#), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko proiektuak garatzeko.
- Tokiko erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei dirulaguntzak emateko [urteko deialdia](#), kulturen arteko bizikidetzaren sustatzeko eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetarako.
- Herritarren parte-hartzea sustatzeko toki-erakundeentzako dirulaguntzen [urteko deialdia](#).
- FEMParen [urteko dirulaguntzen deialdia](#), udal-eremuan berdintasunerako politika publikoen plangintzan eta garapenean genero-zeharkakotasuna sustatzeko.
- NABIn beste [dirulaguntza deialdi](#) batzuk.

3. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko jarduna koordinatzeko tokiko protokoloak egiteko gida:

- Toki-erakunde batean emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko koordinazio-protokoloaren eredia.
- Jai-guneetako eraso sexisten aurkako tokiko protokoloaren eredia.
- Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako hilketen eta egoera larrien kasuan jarduteko prozedura.

4. Genero-indarkeriaren aurkako 2017ko estatu-ituna.

[9/2018 Errege Lege Dekretua](#), abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Genero-indarkeriaren arloko Estatu Ituna betetzera bideratutako funtsen banaketa, udalei esleitutakoak genero-indarkeria desagerrarazteko programetarako.

[1023/2020 Errege Dekretua](#), azaroaren 17koa, genero-indarkeriaren arloko Estatu Itunean toki-erakundeei erreserbatutako eskumen berriak edo zabalduak garatzeko transferentzien zenbatekoak, irizpideak eta banaketa-prozedura eguneratzen dituena.

Banatzeko irizpideak

Dirua Espainiako udalerrri guztien artean banatzen da, azaroaren 17ko 1023/2020 Errege Dekretuak ezarritako irizpideen arabera, eta 1.000 euroko zenbateko finkoa da udalerrri bakoitzeko, gehi 0,18 euroko beste kopuru finko bat biztanleko.

- [Ebazpena, 2024ko uztailaren 11koa](#), Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estatu Idazkaritzak emana, 2024ko ekitaldirako genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunean toki-erakundeei erreserbatutako eskumen berriak edo zabalduak garatzeko

5. NABIk herritarrentzat sustatutako [kanpainak](#).